


Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko uztailak 25

Usurbil, 25. Zenbakia



**Urdaiaga Usurbilgo
Iarrosa ote?**

EZKONTZAK

Ana Isabel Campo Peñaloga (Usurbil)
eta
Xabier Olaizola Rodriguez (Lasarte)
(1997-07-05)

Josu Mirena Errekondo Salsamendi
(Etxebeste kalea)
eta

Nerea Agurne Muruamendiaraz Aranburu
(Lazkao)
(1997-07-19)

JAIOTZAK

Mikel Hernandez Gonzalez
(1997-07-05)
(San Esteban kalea)

Irena Irazusta Iribar
(1997-07-05)
(San Esteban kalea)



- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Agerialdeko ikastetxea 36 38 95
- Oiardo kiroldegia 37 24 98
- Zumarte musika eskola 37 15 94
- Etumeta euskaltegia 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Gurutze Gorria 27 22 22
- Gure Pakea egoitza 37 32 28
- Gure Elkarrea egoitza 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren informazioa 47 09 76
- **Noaua!** aldizkaria 36 03 21

EUSKO TRENBIDEAKEN AUTOBUS ORDUTEGIA

| ASTEGUNETAN | | | | | | ASTEBURUTAN | | |
|-------------|---------|---------|---------|---------|----------|-------------|---------|----------|
| Donostia | Usurbil | Zarautz | Zarautz | Usurbil | Donostia | Donostia | Usurbil | Zarautz |
| 07.10 | 07.35 | 07.55 | 07.40 | 07.00 | 07.25 | 07.30 | 07.55 | 08.15 |
| 07.40 | 08.05 | 08.25 | 07.10 * | 07.20 | 07.45 | 08.30 | 08.55 | 09.15 |
| 08.00 | 08.25 | 08.45 | 07.15 | 07.35 | 08.00 | 09.30 | 09.55 | 10.15 |
| 08.40 | 09.05 | 09.25 | 07.45 | 08.05 | 08.30 | 10.30 | 10.55 | 11.15 |
| 09.00 | 09.25 | 09.35 * | 08.15 | 08.35 | 09.00 | 11.30 | 11.55 | 12.15 |
| 09.40 | 10.05 | 10.25 | 08.45 | 09.05 | 09.30 | 12.30 | 12.55 | 13.15 |
| 10.40 | 11.05 | 11.25 | 09.15** | 09.25 | 09.50 | 13.30 | 13.55 | 14.15 |
| 11.05 | 11.30 | 11.40* | 09.45 | 10.05 | 10.30 | 14.30 | 14.55 | 15.15 |
| 11.40 | 12.05 | 12.25 | 10.20** | 10.30 | 10.55 | 15.30 | 15.55 | 16.15 |
| 12.40 | 13.05 | 13.25 | 10.40 | 11.05 | 11.30 | 16.30 | 16.55 | 17.15 |
| 13.05 | 13.30 | 13.40 * | 11.45 | 12.05 | 12.30 | 17.30 | 17.55 | 18.15 |
| 13.40 | 14.05 | 14.25 | 12.20 * | 12.30 | 12.55 | 18.30 | 18.55 | 18.15 |
| 14.40 | 15.05 | 15.25 | 12.45 | 13.05 | 13.30 | 19.30 | 19.55 | 19.15 |
| 15.00 | 15.25 | 15.35** | 13.45 | 14.05 | 14.30 | 20.30 | 20.55 | 20.15 |
| 15.40 | 16.05 | 16.25 | 14.25** | 14.35 | 15.00 | 21.30 | 21.55 | 21.15 |
| 16.40 | 17.05 | 17.25 | 14.45 | 15.05 | 15.30 | 22.30 | 22.55 | 22.15 |
| 17.05 | 17.30 | 17.40** | 15.45 | 16.05 | 16.30 | Zarautz | Usurbil | Donostia |
| 17.40 | 18.05 | 18.25 | 16.25** | 16.35 | 17.00 | 07.00 | 07.10 | 07.35 |
| 18.40 | 19.05 | 19.25 | 16.45 | 17.05 | 17.30 | 07.45 | 08.05 | 08.30 |
| 19.40 | 20.05 | 20.25 | 17.45 | 18.05 | 18.30 | 08.45 | 09.05 | 09.30 |
| 20.00 | 20.25 | 20.35** | 18.25** | 18.35 | 19.00 | 09.45 | 10.05 | 10.30 |
| 20.30 | 20.55 | 21.15 | 18.45 | 19.05 | 19.30 | 10.45 | 11.05 | 11.30 |
| 21.40 | 22.05 | 22.25 | 19.45 | 20.05 | 20.30 | 11.45 | 12.05 | 12.30 |
| 22.00 | 22.25 | 22.45 | 20.45 | 21.05 | 21.30 | 12.45 | 13.05 | 13.30 |
| | | | 21.15 | 21.35 | 20.00 | 13.45 | 14.05 | 14.30 |
| | | | | | | 14.45 | 15.05 | 15.30 |
| | | | | | | 15.45 | 16.05 | 16.30 |
| | | | | | | 16.45 | 17.05 | 17.30 |
| | | | | | | 17.45 | 18.05 | 18.30 |
| | | | | | | 18.45 | 19.05 | 19.30 |
| | | | | | | 19.45 | 20.05 | 20.30 |
| | | | | | | 20.45 | 21.05 | 21.30 |
| | | | | | | 21.45 | 22.05 | 22.30 |

*Orioraino bakarrik

*Oriotik irtetzen da

**Aiaraino joaten da

**Aiatik irtetzen da



Usurbilgo Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria

3 5 0

usurbildar bazkide ditu
Noaua!-k
Zu ere egin zaitetz bazkide!



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

Zer irizten?

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua!
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,
37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa (943) 36 03 21.
e-mail:
Noaua.mandio@redestb.es

Zuzendaria: Olatz Altuna.

Kazetariak: Ainhoa Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.
Kolaboratzaileak: Pedro Mari
Matxain, Nere Amenabar, Ines
Kamino, Leire Atxega, Iñaki
Labaka, Iratxe Begiristain,
Begoña Zubiria, Amagoia
Mujika, Xabier Arregi, Pako
Agudo, Alfonso Vidal, Nieves
Aranburu, Luis Aranalde eta
Zalao Arnaiz **Administrazioa:**
Arantxa Usarralde, Aitor
Pikabea eta Nerea Kamino.
Erredakzio Kontseilua: Olatz
Altuna, Garikoitz Udabe, Jose
Jabier Furundarena, Iñigo
Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa: Susana

Martin. **Argazkia:** Joxe Antonio
Labaien. **Informatika:** Pili Liza-
so. **Banakeia:** Mertxe Jimenez,
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.
Sukaldaria: Joxe Mari Sarasola,
Tirada: 2.200 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza,
Industrialdea 1 - 2, 20.160
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak
ez du bere gain hartzen aldiz-
karian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik.

**PORTADA: lazko
Sanestebanetan ospatu
ziren herri jokoak.**



Zer eskeintzen die kanpaldiak gazteei?

Idoia Iturrioz

Ziortza Gazte Elkarteko begiralea

Urtero ohi den bezala
Errioxako Cameros mendize-
rran Ziortza Gazte Elkarte kanpal-
dia burutzen ari da. Ekintzarik
nagusiena eta urteko ibilbidearen
borobiltzea kontsideratzen dugu.
Bertan larogei bat gaztetxo, gazte
eta monitore elkarrekin jolastuz,
ibilbideak, antzerkiak eta gaube-
lak eginaz, aintziran bainuak har-
tuz e.a. igarotzen ditugu uztailako
egunak, Santixabelen ondoren.

Lerro hauek eskeintzen didaten
tarte aprobeztatuz gogoeta pro-
posatu nahi nuke. Hau da, zer
eskeintzen die kanpaldiak usurbil-
dar gazteei?

Esperientzia berria, beste bizitza
estilo batean pozik bizi daiteke
adieraztea. Telebista eta denbora
librea pasatzeko ohizkoak ditugun
"tresnarik" gabeko bizitza eta abar.

Etxean eta inguruan erosotasu-
nak alde batera utzita bizitzea.
Lurraren gainean lo egitea, goiz
jeikitzea, ontziak eta bakoitzaren
arropa eskuz garbitzea...

Balore desberdinak lantzea:

➤ Banatzearen balorea, elka-
rrekin jolastuz, hainbat lan taldean
eginez, harremanak landuz ibilal-
dietan... Hitz batean, egunak
dituen 24 orduetan elkarrekin biziz.

➤ Elkartasuna, bakarkako ja-
rterak alde batetara utziz.

➤ Elkarren arteko errespetoa
landu.

➤ Harremanen bidez adiski-
detasuna eta lagunartean bizi-
tzea.

➤ Jolasa eta adierazpenaren
bidez sormena lantzea, beldurrak
eta lotsak alde batera utziz.

➤ Kontsumo-ezan hezitzen
saiaetzea.

Ingurugiroak eta naturak eskein-
tzen digun guztia dastatu, bizitu e-
ta gozatu. Mendiak, zelaia, herri-
ak eta herritarrak errespetatu.
Ibilaldiak dira honen adierazgarri:
motxilan hiru, lau edo bost egune-
rako janaria eta arropa hartu eta
mendian gora, herrietan zehar ibil-
tzen gara. Janaria guztion artean
prestatzen dugu, lo egiteko lekua
edo aterpea aurkitu behar da eta
kilometro dexente egiten ditugu.
Ekintzarik gogor eta zailena badi-
rudi ere gehien baloratzen dena
da.

Fedea ospatzeko giro eta gune
berezia eskeintzea. Modu bereziko
ospakizunak, naturan, guztion
artein prestatutakoak elkarrekin
ospatzea.

Hemen dituzue hainbat puntu,
heziketa eskeintzearen barruan
gabiltzan begiraleontzat garrantzi-
tsuak direnak kanpaldia prestatze-
rakoan. Orain zuri dagokizu gogo-
eta egitea: zer eskeintzen die kan-
paldiak usurbildar gazteei?



TABERNA

Usurbilgo txilborrean
herritarron topaleku

Irazu kalea, 9
Tlf: 36 02 17



xabier
edaritegia

Pintxo aukera bikaina
Gosari bereziak

Aritzeta, 2

☎ 36 19 78

PNVri ERANTZUNEZ

Beste behin ere, Usurbilgo PNVkoak, lekuz kanpo saltsa jarri nahian dabilta. Oraingoan larrieldietarako etxebizitzetoki tokatu zaie. Egia da ekainaren 16an argibideak eskatu zituztela idatziz Udaletxeko Erregistroan. Egia den bezalaxe, uztailaren 8an Alkateak idatziz erantzun ziela. Hala ere uztailaren 18ko **Noaual**n oraindik erantzunik ez dutela jaso diote.

Herritarrek jakin dezaten, erantzunak, hitzez hitz, honela zioen:

"Larrieldietarako etxeen erabile-
ra uzteari buruzko kriterioak eskatu dituzuenek, honako hauek erabili direla adierazi behar dizuet:

-1997ko uholdeek egindako kalteen ondorioz, hasiera batean bi eskaera izan genituen.

-Segidan, aurkeztutako bi eskaerak aztertu zituzten Gizarte Laguntzaileek eta zinegotzi arduradunak, eta Aholku Batzar berezia egin zen. Hori horrela, eskaerak larrieldietarako pixu hauetan sartzeko dauden baldintzetara egokitzen direnez, onartu egin ziren eta maixu etxeko larrieldietarako

etxebizitzak uztea erabaki zen.

-Bi etxebizitzaren erabakia hartu ondoren, beste eskaera bat aurkeztu zen, baina ezin izan zitzaion erantzun bera eman. Dena den, Udala prest egon da eta dago, herritar guztiei bezala, larrieldietarako etxebizitzarik ezean, beste mota bateko irtenbidea emateko aurkeztutako eskaerari.

-Amaitzeko, esan behar dizuet aurkeztutako idatziak ez duela zentzurik, jakinik, zinegotzi guztiek dutela batzorde guztietan parte hartzeko eskubidea, eta Batzordean parte hartuz gero, idatzi honen beharra soberan legokeelako.

-Besterik gabe, adeitasunez. Usurbil, 1997ko uztailaren 8a. Alkateak."

Idatzizko harremanak argi eta garbi utzi ondoren, gogoeta txiki bat.

Berez, gai hauek, beste guztiak bezala, eztabaidagarriak dira. Eta eztabaidatzeko leku ugari eskeintzen du Usurbilgo Udalak. Ez du inor baztertzen, beste leku batzuetan gertatzen den bezala. Lehenik, Batzorde Informatiboak dau-

de eta bertan informazio guztia zabalitzen da. Gero Gobernu Batzordea dago eta bertan ere nahi duten talde guztiak daude eta azkenik Usurbilgo Plenoak irekiak dira eta nahi duenak har dezake hitza, nahi duenaz galdetzeko.

Aukera guzti hauek eskura izan arren, PNVko zinegotziek ez dituzte erabili eta nahiago izan dute **Noaual**ra jotzea. Arazoa zera da, Batzordeetara joan egin behar dela, bertan gaiak landu egin behar direla eta hori, noski, jende honi gehiegi eskatzea da. Alferrak dira.

Aukera guztiak izan arren, Batzorde batzuetara bakarrik agertzen dira, askotan berandu, beste batzuetan bukatu baino lehen alde eginez. Juxtu dietak kobratzeko adina. Eta noski, agertzen direnean ezer gutxi jartzen dute beraien aldetik. Edo ezer ere ez. Alferrak dira.

Amaitzeko adierazi, gure ustez **NOAUA!** ez dela lekuri egokiena honelako saltsetarako, baina beraiak behar gaituzte egi batzuk agertzerara.

USURBILGO HERRI BATASUNA

Aurreko batean kontatu genizuen ekaineko euri jasengatik errotarriak azaldu zirela Txokoalden. Badakigu uda honetan eguraldia ez dela primerakoa, baina ez dugu uste uztailan egindako euriak ekarri duenik errotarri hau erroton-dara. Misterio honen erantzuna Kalejiran aurkituko duzu.



Telesforo Ardoak



Zure mahairako egokienak

Kale Nagusia, 25
Telf. 36 12 20



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Xabier Carbayeda eta Goyo Martin

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA



TEL. 36 61 97

BITXITEGI ARREGI ORDUKARI




Kale Nagusia, 2
Tif. 36 40 58



BENITO ARANBURU GAZTAÑAGA

Aginagako "Arpidegi" etxean jaio eta bizi da, nahiz eta ia denentzat "Ezkerranea" izan baserri hau. 73 urte ditu, 8 seme-alaba ditu eta baratzeko lanak gustokoa ditu oso.



Zergatik ezagutzen da "Arpidegi" "Ezkerranea" izenarekin?

Nire aitona eta osaba "Ezkerranea" baserritik etorri ziren baserri honetara, eta hori dela eta izenarekin geratu zen hau ere.

Gazte hasi omen zinen lanean.

Bai, 14 urterekin Irisasira joaten hasi nintzen pinua landatzera. Urte bete baino gehiago egin nuen bertan lanean, gero "Abrasive del Norte" lantegia eraikitzen hasi nintzen. Horretan ari ginela, asteburu batean euri jasa izugarria egin zuen eta lantegia behera etorri zen. Bigarren aldiz eraiki behar izan genuen. Amaitutakoan sei hilabete pasa nituen bertan lanean.

Baina berriro eraikuntza lanean jarraitu zenuen.

Bai, Orion hasi nintzen 13 pezeta kobratuz. Baina orduan jakin genuen Andoainen 14 pezeta ordaintzen zituztela eta bertara joan ginen. Baina berriro Oriora bueltatu ginen. Artean ez nituen 18 urte ere.

Non egin zenuen soladuzka?

Bai, eta aitortu behar dut soldaduentzat nahiko toki ona zela, janaria behintzat ez zen falta, eta ziren garaietarako... 1944ean joan nintzen eta 46an bueltatu. Euskal Herrian ogi beltza jaten zen orduan. Ni jatun ona izan naiz eta orduan ere gutxienez egunean 2 kilo platano jaten nituen. Batzuetan 3 eta 4 ere bai.

Orduan bidaltzen zizuten dirua platanoetan gas-tatzen al zenuen?

Euskaldunok bai behintzat. Besteak zinerako dirua eskatzen ziguten bitartean, guk ordainez ogia eta jatekoagatik aldatzen genien.

Lehen gehiago pixatzen zenuen, ezta?

Bai, 100 kilora iritsi izan naiz, baina osasunerako kaltegarria zela eta potajeen errejimena egin nuen, eta orain 85 kilotan nago.

Eta Canarietatik zenbat aldiz etorri zinen?

Bi permiso izan nituen, eta bigarrenengan ja etxean geratu nintzen. Lehengoan, etxerako bidean nafar batzurekin topo egin genuen. Gure aurrean emakume bat zegoen 12 botila ardo, atuna eta ogiarekin. Nafarrek zera esan zioten emakumeari: "con cesta y todo te compro", eta emakumeak xextoa ez zuela salduko erantzun zien. Ederki lo hartu genuen ondoren.

Eta zer egin zenuen soldaduzka amaituta?

Michelinen sartu nintzen lanean, eta bertan pasa ditut 37 urte. Kubiartak eskuz egiten 28 urte, eta gainontzekoa kamarak konpontzen. Ondoren, eta ohikoa zen baino beranduago bazen ere, ezkondu egin nintzen.

Anguletan ere arituko zinen.

Lehen orain baino gehiago, baina semearekin ibiltzen naiz oraindik arrantzan. Hala ere, gutxi dago orain, motor asko ibiltzen da, eta alan gaudenak erortzeko beldurrez egoten gara. Bestetik, fabrikek botatzen duten zerrikeria kalte handia egiten ari da ibaian.

Eta baserriko lanak gustoko al dituzu?

60 urterekin jubilatatu nintzenean bost behi genituen, baina tartekakanpora joaten nintzenean semeak ez zituen zaindu nahi, eta azkenean piskanaka abereak kendu egin genituen. Baina orain baratzan aritzen naiz patata, piperrak... eta abar lantzen.

USURBIL
O P T I K A



Irazu kalea, 9-11. 20170 Usurbil
Tlf. eta Faxa: 37 02 69(Gipuzkoa)

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

20170
USURBIL

P A T R I

J A T E T X E A

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia,6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

URDAIAGA



Leire Atxega

Festetan komunak bai; urtean zehar zergatik ez?

Auzoko jaiak gainean ditugu. Datorren astean suziri hots, trikiti doinu eta abarrek San Estebango urteko jairik garrantzitsuenak hasi direla ohartuko zara. Baina bada ordea, jaietz gain aipatzea gustatuko litzaidakeen beste zerbait ere.

Urte sasoi honetan asko dira San Estebango auzora igotzen direnak. Aitzakiak asko izan daitezke: ezkontza bat dela, eguraldiak pasiatzera gonbidatzen zaituela, igande pasa egitera, edo haize frexkoa hartzera...

Baina zauden egoeran zaudela, **zeure eginbeharrak egiteko gogoa etortzen bazaizu**, auzo polit honetan belazeak erabili behar dituzu. Eta hainbeste jende ibiltzen den toki batean **komun bat jartzea ez al da zilegi?**

San Estebango jaietan jartzen dira, eta ez dago batere gaizki. Izan ere, hainbeste jende ibiltzen den egun haueetan beharrezko neurria dela uste dut. Baina urtean zehar jende asko hurbiltzen da komunak non dauden galdezka. Badakit proiekturen bat

edo badagoela tartean, baina ez dakit momentuz nola dagoen kontu hau. Beharrezko zerbait dela behintzat ez dago dudarik. Ea ba usurbilgo udalak kontuan hartzen duen eta behar hau asetzeko neurriak hartzen dituen.

Gogoeta hau egin ondoren, **San Estebango jaiak ongi pasatzea opa dizuet auzotar guztioi** eta baita usurbildar guztioi ere. Eta bide batez, **uda ere ona izan dadila, eta oporrak ongi pasa.**

biltzen den garraiobide berezi bat pasa zen bertatik. Hau, nahikoa handia zen, baina antza ez zituzten kalkulu guztiak ongi egin zubia pasa aurretik. Uste baino handiagoa zen aipatu garraiobidea eta zubiko bi aldeetako barandak hautsi zituen. **Ea laister konpontzen diguten**, lehen ere nahikoa nahasmen bai baitago auzoan. Besterik ez; **uda ona pasa dezazuela.**

SANTUENEA



Alfontso Vidal

Zubiko baranda hautsita dago

Santueneako zubia erabiltzen duzuen guztiok honez gero konturatuko zintzen **bertako baranda hautsita dagoela bi aldeetatik**. Agian ez duzue jakingo, baina pasa den egunean obretarako era-



KALEBERRI



Ines Kamino

Herriko kaleak desinfektatu dituzte

Jaiak dagoeneko ahaztuta izango dituzue. Auzo ezberdinetakoei tokia egiteko garai iritxi da. Baina inor konturatu al da jaien ondoren herriko kaleak nola geratu diren? Garbitu, garbitu dituzte, baina hala ere arrasto asko ikus daitezke kalean. Hau dela eta **Intsumiso kalean, eta hemendik Eguzkitzaldara doan bidean azido sulfurikoa bota dute**; honekin **kaleak desinfektatzea** lortzen dute, beharra ere izaten baita batzutan, eta **ez irristatzeko ere baliagarri da. Uda ona pasa!**

Haur jantziak



Kale Nagusia, 2 Tel. 36 59 43



arrate

z a h a r



e g o i t z a

taberna - jatetxea

Aginaga

Tlf. 36 63 40



San Esteban kalea, 1
Usurbil

Tlf 36 00 80

TXOKOALDE



**Iñaki
Labaka**

Urdaiagarako igoera nahikoa gaizki dago

Sanestebanak gainean ditugu, eta oraindik **Goiko Errota baserriaren ondotik pasatzen den errepidean konpontze lanak egiten ari dira.**

Aurreko alean nioen bezala Urdaiagara joateko aukera bakarra geratzen zaigu, **Aldatxa baserriatik barrena** igo-tzea. Normalean, nahikoa bide egokia dugu hau, ez baita ibilgailu askorik ibiltzen bertan. Baina festa egun hauetan ordea arriskua areagotu egiten da; denok dakigun bezala tramu batzuetan bi kotxe gurutzatzeke nahikoa lan sortzen da.

Espero dezagun lanak gehiago ez luzatzea eta abuzturako betiko bidea zabalik egotea. Hala ez bada oso kontuz ibili beharko dugu, maldan behera joan nahi ez badugu.

Ea ba eguraldia lagun izaten dugun, hainbeste eurirekin nazka nazka eginda baikaude. Hori bai, azken egunetako urek beraien bidea hartu dute, erreka zulotik barrena.

Ah, eta esan didatenez, lehendabiziko saialdi batean kale egin bazuten ere, Ingemarko kableek huts egin zietelako, udaletxeko langileek lortu dute **errotarri bat atera-**



tzea. Kokaleku berria Usurbilgo errotonda izango du (Ikusi Txirikitutik atala). Uda ona pasa.

AGINAGA



**Iratxe
Begiristain**

Eliza zaharreko pinua ihartu egin da

Eliza zaharraren ondoan **dagoen pinua**, zahartzaroz ihartu egin da. Beraz, udazkeneko hego haize eroari aurrea hartuz **botatzea komeniko litzateke**, arriskurik ez sortzeko. Baina bota bakarrik ez, berriak ere sartu. Lehendik dagoen pagoaren ondoan beste bi zuhaitzentzako badago lekua. Bertako haritzak izatea posible ote da?

Eskerrik asko urtebete honetan Noaua! ateratzen lagundu diguzuen guztioi; eta bereziki Kalejirako berriemaileei.

Guk ere lan asko egin dugunez, opor egun batzuk behar ditugu. Horregatik, hauxe izango duzu irailaren 19rarte jasoko duzun azken alea. Denboraldi honetan Noaua!ko atea horrela aurkituko duzu: itxita.

Eguzkiak ez zaitzala asko erre!



BARATZA
FRUTADENDA

Aukera zabala
zure eskura

Eguzkitza,4 USURBIL
Tlf. 36 49 81

Laurok
Liburudenda

ALPERROBURU KALEA-BEHEA
20170 USURBIL TLF 36 34 48

JUANTXO
Burdindegia



Kalenagusian gaude,
10. zenbakian!

Uda ona
pasa
guztiok!

H erorrek esan



Larraitx Agirre

Aginaga

Nire ustez Usurbilen

semaforo gehiago egon beharko lukete, beharrezkoak direla uste dudalako. Izan ere, kalea zeharkatzean behin baino gehiagotan jendea ia harrapatu izan dituzte.



Alfredo Chamorro

Atxegalde

Nire ustez oraindik ez dira beharrezkoak.

Santueneakoak beharrezkoak dira, zubia dagoelako, baina hemen ez dut uste behar direnik. Semaforoak jartzea ez duela merezi uste dut.



Joxe Antonio Bereziartua

Atxegalde

Nik behintzat ez ditut beharrezkoak

ikusten, oraindik behintzat ez. Oraindik ez daukagu hainbesteko kotxe arazorik hemen. Azken aldian gehiago dabil, baina oraindik gehiegi ere ez.



Pablo Kastresana

Eguzkitza

Ez dira beharrezkoak. Usurbil

piskanaka haunditzen doala egia da, eta hori nabarmentzen da, baina oraindik semaforoen premirik ez dagoela esango nuke.




Sara Lazkano

Sanesteban

Niri iruditzen zait ez direla

beharrezkoak. Kotxeak ibiltzen dira, baina denontzat nahiko lekua dago, ez dago semaforoen hainbesteko beharrik. Santueneakoak nahikoak dira, hor beharrezkoak baitira.



Nagore Unanue

Atxegalde

Semaforo gehiago egon beharko

luketela uste dut, kaleberrin batez ere. Askotan jende asko ibiltzen da hemen eta kotxeak bixi ibiltzen dira. Arrisku handia dagoela uste dut, eta beraz, bertan semaforo batzuk jarri beharko liratekeela uste dut.



Mari Berasaluze

Santuenea

Nire ustez semaforo batzuk egon

beharko lukete. Adibidez, Bizkarre parean herrira kotxez sartzeko gaizki dago, jende asko ibiltzen da eta nahiko toki arriskutsua da. Bertan semaforoak jarri beharko lirateke.



Antonio Guadix

Atxegalde

Nik ez dut uste

Usurbilen beharrezkoak direnik semaforoak, oraindik ez, behintzat. Santueneakoekin nahikoa dugu herrian. Toki horretan bai beharrezkoak dira, ez baituzu ikusten beste aldetik nor datorren.

Jadanik Sanjuanak urruti geratu dira, baina oraindik festetan ibiltzeko aukera badugu, izan ere, Sanestebanak gainean baititugu. Eta zerbaitegatik askok "herriko festarik onenak" direla esaten dute.

Urdaigako jaien prestaketaz festetako batzordea arduratzen da. Bertan, une honetan 25-30 gazte inguru dabilta lanean. **Andoni Arruti**, batzordekideak azaldu digu beraien funtzionamendua: *"irailaren erdialdean hasten gara musika taldeei deitzen, eta urrirako gai hau lotuta uzten dugu. Gero, apirila inguruan hamabostean behin biltzen hasten gara, eta gainontzeko guztia prestatzen dugu. Azkenik, uztailean astean behin biltzen gara azken ikutu eta prestaketak egiteko"*.

Toki falta nabarmena

Batzordeko kideentzat garrantzitsua da jende guztiak festetan ondo pasatzea. Horretarako, bai gauean bai egunean zehar egiten diren ekitaldi guztiak ahalik eta egokienak izaten saiatzen dira, gazte, heldu eta haurrentzat. *"Urtero urtero zerbaitek desberdina egin nahi izaten dugu, baina askotan hori ezinezkoa izaten da. Gure arazorik haundiena toki falta izaten da. Adibidez, herri jokoetarako talde gehiago ekarri nahi genituen aurten, baina plazan ezinezkoa da lau taldek jokatzeko, beraz... Gaueko parte hartzea, berriz, ziurtatuta egoten da"*.

Sanestebaneko festen aurrekontua nahikoa igotzen dela aitortu digu Andonik: *"Festek gutxi gora behera 1.700.000 pezetako aurrekontua dute"*. Diru hori lortzeko Udaleko laguntzaz gain, errifak eta taberna dira batzordearen diru sarrera nagusiak: *"hala ere, tabernarekin ateratzen dugu diru gehiena"*.



Arraroa gerta badaiteke ere, batzordea osatzen duten gehienak ez dira Urdaigakoak. Ber-takoa den bakarra egongo da batzordean, eta Txokoaldekoa ere beste bat dago. Gainontzekoak Santueneakoak eta gehienak, berriz, Kaleberrikoak dira. *"Hasieran berriek festetan laguntzen dute, bai tabernan bai ekintzen antolaketan, horretarako jende asko behar baita. Hala ere, azken laupabost urtetan komisia ez da berritu, eta argi ikusten da gazteek ez dutela ardurua haundiegirik hartu nahi. Betikoak gabiltza lanean"*. Urtean zehar Sagardoaren Lagunak-en lokalean biltzen dira, baina festa hurbildu ahala Urdaigako lokalean hasten dira bilerak egiten.

Festak hobetzeko erosketak

Batzordea urtez urte ere zerbait erosketa egiten joan da; iaz instalazio elektriko guztia berritu zuten, duela lau urte tabernarako toloa erosi zuten eta aurten lokala txukundu dute, egoera nahiko txarrean baitzegoen: *"hala ere, elizak ez digu lokal berria egiten uzten"*, aipatzen du Andonik.

Prestaketak prestaketa, Sa-

nestebango jaiak herri guztia erakartzen du Urdaigara. Makina aldiz entzun izan dugu gure artean Sanestebango festak "bereziak" edo "herriko onenak" direla; baina zer dela eta arrakasta hau? Andonik ere ezin du zehaztu arrakasta honen arrazoia: *"Ez dakit zergatik den desberdina denentzat, beharbada tokia txikia delako eta giro berezia sortzen delako. Baina herrikoaz gain, talde, abeslari eta beste zenbaitek Sanestebanen soilik parte hartuko dutela esaten digute. Beste batzuk gutxiago kobratuko digutela ere esaten digute. Beharbada honen arrazoia giroaz gain batzordea bera beraiekin oso ondo portatzen dela da. Adibidez, taldeak amaitzen duenean tortilak eta abar egiten dizkiegu eta festa pribatua egiten dugu. Bestetik, ordu gehiago jotzen badituzte edo "enroilatzen" badira, diru gehiago ematen diegu... Sanestebanek giro berezia du eta gu hori mantentzen saiatzen gara guztiaren gainetik"*.

Ziur guk ere eskertuko dugula ahalegin hori. Orain eguraldi ona eskatzea bakarrik falta da, nahiz eta hori Sanestebango jaietan arraroa izan.

San Esteban Urdaiaga: fraide eta untzien artean

Harritzekoa da, baina San Estebaneko historiaz hitz egitea bere inguruaz hitz egitea da. Etxeak eraiki baino lehenago, bere mendietan gaztain eta ezkurrez elikatzen ziren arbaso usurbildar zakarrak bizi ziren. Eta horrela bizi izan ziren urte askotan.

Apalak izaki, hiltzean ez zituzten piramide edo hilerri ikusgarriak eraikitzen, trikuharriak baidizik. Andatzan ikus ditzakegu batzuk: Etumeta, Lapurtokita eta Baztarraitxo, besteak beste. Guztiak Burdin Arokoak dira.

Frantziskotarren itzalpean

Etxe txiki batzuetaz aparte, San Esteban eta honen ingurua ez zen jende asko bizi garai haietan. Datu hau baieztatzen duten erreferentziarik ez bada ere, gaur egungo auzoa (garai batean Nafarroako erreinuaren barnean kokatua), fraide frantziskotarrek zuten monastegi baten itzalpean sortu eta garatu zen. Monastegi hau existitu bazen (askotan baieztatu den bezala), XII. mendearen erdialdean eraikiko zen. Lur hauek jauntxo feudal batek oparitu zituela esaten da, nahiz eta hori egiteko arrazoia zein izan zen jakin ez. Usurbil herri bezala sortu baino lehenagoko kontuak dira hauek (1371. urtea baino lehenagoko kontuak, beraz). Lurren gaineko botere honek XIX. menderarte iraun zuen, desa-

mortizazioak egin ziren arte, alegia. Oraindik ondo begiratuz gero, Orreagako Kolegiataren armarrria duten lapida itxurako mugarriak ikusi daitezke Andatzan (idazki hau idatzi duen honenek hauetako bost aurkitu ditu).

Erromesak
Urdaiagara igotzen
ziren, ermitan
otoitz egin ondo-
ren, Andatzako
bideak jarraitzeko

Garaiko Santiagoren erromesaldiek hegoaldeko ibilbideak sahistu egiten zituzten, musulmandarrei beldurra zitelako. Hori dela eta, kostaldeko ibilbidea jarraitzen zuten erromesek. Usurbilgo kasuan, Oria zeharkatu ondoren, Salbatore elizara, Kalezarko Sokorroko amaren eta San Estebango ermitara

sartzen ziren erromesak otoitz egitera. Urdaiagara igotzen zirenak Andatzako bideak jarraitzen zituzten gero.

Monastegia eraikitzeko Urdaiagako talaia pribilegiatua aukeratzearen arrazoia era honetan azal daiteke: "zenbat eta gorago egon, hobeto defendatzen da". "En nombre de la rosa" liburuan antzera, baina herriko bertsioan.

Zehaztugabe dagoen une batean, fraideen boterea gutxitzen eta herriko alkatearena finkatzen joan zen. 1371. urtean San Esteban Usurbilgo herriari atxikitu zitzaion. Garai honetan (Gipuzkoa 1200. urtetik aurrera Gaztelako erresumaren barnean kokatuko da) erregeek ingurunea populatu nahiko dute, Nafarroatik babesteko.

Bandokideen gudak iraun



San Estebanetako jaiei fama aspaldidanik datorkie; XVII. mendean jada hauei buruz egiten zen hizketa.

ARRUTI
ARDOAK



Santuenea, 15
Usurbil ☎ 36 38 46

Gai zori ontsuak!



ZUMET A
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMET A MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Itsaskientsaladahozber oatrufa zaporez
- Zapoatxangurr ozbeteriketaitzaski saltsaz
- Aspizuna patata pur e, ondo eta pikilopiperraz haragi saltsatan
- Etxeko azken buruko endegustazioa
- Ardo berezia eta kafea

3.200 pta.



Öndö pasafestak!

BAZKARIAK
ETA AFARIAK

Santuenea 23
Tlf. 36 27 34

zuen bitartean (XIV eta XV. mendeen artean), inguru hau oso kaltetua izan zen. Garai honetan Urdaiagako dorre eta etxe "fuertea" oso ezaguna bihurtu zen. Bere jabea Martin de Idiaquez izan zen. Hija-eko duketxeko artxiboan topatutako dokumentu batek "arraroa, haundia, sendoa eta zaharra" bezala deskribatzen du dorre-etxea. Planu eta deskribaketak gorde ziren, baina dorrea ez, eta gaur egun ez geratzen haren inolako arrastorik.

Untziolak Aginagan

Urteak pasatzearen poderioz, usurbildarrak mendi eta haritz, arte, pago etabarrez betetako baso aberatsetaz ohartu ziren. Era honetan, gatzainez gain, zuhaitz sendoak mozten hasiko dira itsasontziak egiteko. Baita errotarriak eta ikatz begetala burdinolentzat ere. XVI. mendtik aurrera azalduko dira Aginagako untziolak lehen aipamenak. Untziola hauek "Astilleros Reales de Mapil" bihurtuko dira beranduago. San Estebaneko egurrarekin untzi eta galeoiak eraiki ziren, eta hauetako asko Ameriketara joango ziren.

Egur mozketa haundia zegoen tokian birlandaketak egiten ziren, baina XIX. mendetik aurrera betiko zuhaitziak pinuak ordezkatu zituen. Ofizilaki, inguruko mapa guztiak mende honen hasieran udaletxean gertatu zen sute batean erre ziren, baina lerro



Oso zaila da San Esteban Oako ermita noiz eraiki zen ziur jakitea.

hauek sinatzen dituenak mapa oso zaharrak ikusteko aukera izan du eta ziurta dezake garai hartan basoen kopurua benetan izugarria zela.

Aginagako
untzioletan
untzi eta galeoi
asko eraiki
ziren

Urdaiaga San Esteban de Oa ermita noizkoa den jakitea zaila da. Batzuentzat monastegiaren oinordekoa da; beste batzuek beranduago eraiki zela uste dute.

Erromesentzat otoitz-toki ezaguna izan zen San Esteban, eta beranduago ezagunak izango dira bere jaiak. Festen aipamena jada 1641. urtean egiten da: "*durán el discurso de cinco o seis días, y en ese tiempo según la costumbre, cualesquiera*

personas pueden traer y vender vino y otras cosas".

Eta jada guda karlistetan kokatzen gara. 1873. urtean, Santa Kruz apaizak Usurbilen zenbait tren deskarrilatu ondoren San Estebanen gorde zela esaten da. Destakamentu batek aurre egin zion apaizari, eta borroka hartan Don Luis Osta y Espinal, Lutxanako Errejimenduko koronel liberal nafarra eta Fulgencio Saez sarjentua hilik suertatu ziren. Kontatzen dutenez, koronela seminarioan ikasten zebilen batek hil zuen ermita bertatik.

Bitxikeri bezala, Usurbilgo hilerrian (sartu eta eskubitara) guda triste honetan hildako korolenaren alargunak, alabek, anaiak eta Lutxanako Errejimenduko buruzagi eta ofizialek jarritako plaka ikus dezakegu.

Miguel A. Dominguez

Mari
janaridenda

Ondo pasa
sanestebanak!

Jaiegunetan irekita
Erosketak etxera ere eramaten dira
Santutena, 22 Tlf.: 32 62 58



URTINEA
LORATEGIA

Lore eta lore landareak

Sanestebanjai
zoriontsuakuztioi!

San Esteban
Tlf. 36 2255

Lb T
HARATEGIA

Festa onak pasa!

Atxega Alde, 34
Usurbil

☎ 36 57 42

ABUZTUAK 1 ostirala

Trikiti eguna

19.00: Jaien hasiera

23.00: Trikiti gaua: Maider eta Alaitz

Triki-Take

Etzakit

ABUZTUAK 2 larunbata

Umeen eguna

10.00: Haurren jolasak

16.00: Mus Txapelketa

17.00: Pailazoak

Ondoren txokolatada.

Gauean rock kontzertua: Deabruak Teilatuetan

Ondoren Izotz.

ABUZTUAK 3 igandea

San Esteban eguna

8.00: Ibilaldi neurtua

9.00: Esnadeia

11.00: Meza nagusia

Ondoren zahagi banaketa, dantzariak eta herri kirolak.

14.00: Jubilatuen bazkaria

18.00: Bertsolariak:

+Egaña

+Lizaso

+Mañukorta

+Iturriaga

Ondoren txiste kontalariak.

23.00: Laiotz

ABUZTUAK 4 astelehena

Oilasko biltzaileen eguna

6.00: Oilasko biltzaileen irteera

14.00: Oilasko biltzaileen bazkaria

23.00: Trakets



Sanestebaneko festetan oilasko biltzaileek ez dute huts egiten. Hori frogatzeko, hona hemen irudi bat; jende faltagatik behintzat ez dira kexatuko antolatzaileak. Argazkia duela bi urtekoa da, 1995eko jaietako, alegia.



ZABALEA



Binakako logelak
Gosari zerbitzua

San Esteban auzoa
Tlf: 36 12 61

ZABALA ANAIK

janaridenda

Ondo pasa festak!

Santuenea, 17

Tlf.: 37 20 34



Etxebizitza inguruak aurrera eta harmail berriak

Pasa den maiatzean gure aldikariaren tarte honetan azaltzen genuen Udalak lehen onespena ematen ziela herrian sortuko diren lau etxebizitza inguru berri. Lehen onspen hura egin ondoren, hilabeteko epea irekitzen zen proiektu hauei enmendakinak egiteko.

Lau etxebizitza inguru hauek Txaramunto, Galtzragainako lehenengo faseko etxeak eta Arriate etxearen tartearen dagoena, Kalezarko Aizperroenea baserriaren aurrean egingo dena eta Michelin lantegiko aparkalekua eta Arsuaga etxearen tartearen kokatuko dena dira.

Lau proiektu hauetatik soilik Txaramuntoko etxebizitza inguruan jaso da enmendakina, eta onartu ere egin da. Beste hiruretan ez da inolako alegaziorik jaso, beraz, behin behin-

goz lau etxebizitza gune hauek onartu egin dira.

Frontoiaren azken ikutuak

Bestetik, frontoiko obran berrikuntza gehiago egin dira eta hauek ere aurrekontuetan sartzea erabaki da. Hauek izango liriateke berrikuntza batzuk, besteak beste: piboteak, muralak jartzea, toldoaren tapakia eta frontiseko sarea.

Frontoiarekin jarraituz, harmail berriak egiteko proiektua hiru enpresei eskatu zaizkie, eta eskeintzak aurkeztu ondoren, "Talleres Amondarain S.A."ri ematea erabaki da. Harmailek 3.018.800 pezetako aurrekontua izango dute.

Azken egunetako giroa aztertuz



"Talleres Amondarain S.A." enpresak egingo ditu frontoiarentzat harmail berriak

Uztailaren 15ean presakako Udal Plenoa ospatu zen Miguel Anjel Blancoren erahilketari buruzko proposamenak aztertzeko. Bi idazki aztertu ziren, HBK azaldutakoa eta EA eta EAJK aurkeztutakoa bestetik. Udal Plenoak Herri Batasunaren proposamena onartu zuen. Idazkian, Herri Batasunak Miguel Angel Blancoren egorari irtenbidea bilatzeko berebiziko ahaleginak egin dituela adierazten da, euskal presoei zor zaizkien eskubideen haritik.

Azkenik, pasa den asteartean berriro bildu zen Udal Plenoa. Bertan, Albaceten preso zegoen Juan Karlos Hernandezoren hilketari buruzko mozioak aurkeztu zituzten Usurbilgo Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Herri Batsunak.



Noauaren lokaletik hasi eta kamioien aparkalekuraino joango litzateke Txaramuntoko etxebizitza inguru berria.

ZENDOIA - ENEA



TABERNA



Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaiketakoak, eguneroko menuak eta bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 36 25



Aginaga
36 27 73

BEREZITASUNAK
SEKAÑA Txerrikumea,
Auleta eta Arraia

Buru-azalar enzainketa
Ile-apainketa

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85

Kalezarko santutxoaren berritze lanak hasi dira

Aurreko alean azaltzen genizuen bezala, Aranzadi Zientzia Elkarteak, Kutxak eta Usurbilgo Udalak bultzatutako **Kalezarko santutxoaren berrikuntza lanak** jadanik hasi dira. Pasa den astelehenean egin zitzairen harrera udal-txean lana aurrera aterako dutenei eta berrikuntzak bi aste barru amaituko dira. Humilladeroko egurra, harria, gurutzeak eta teilatua konponduko dituzte. Bi astetan, gazte hauek Agerialdeko ikastetxean jan eta lo egingo dute, beraz, herrian jende berria ikusteko aukera izango dugu.



Abialdian herritik pasa zen



Abialdian, Askatasunaren ibialdia, Bilbon amaituko da. Bere bidean, gure herritik ere igaro da, pasa den uztailaren 20an, hain zuzen ere. Duela 20 urte egin zen lehenengo Abialdian, amnistia eta estatutua eskatzen zen; oraingoan pasa den herrietatik askatasunaren mezua zabaldu du "geure geroa eraikitzeko eskubidea" lelopean. Jende ugari bildu zen igande eguerdi aldera Abialdian ongi etorria egiteko, ondoren, eta ekitaldi nabarmen guztiek merezi duten legez, bazkari herrikoia egin zen frontoian.

Joxe Jabier bosgarren segalari txapelketan

Joxe Jabier Urdangarinek Gipuzkoako segalari txapelketan parte hartu zuen pasa den uztailaren 20an Larraitzko zelaletan. Era honetako txapelketan jokatzeko lehen aldian zen hau, eta ez zuen zorte haundiegirik izan ere, bost segalarietatik bera azkena geratu baitzen. Hala ere, bera animoso dago eta aurrera jarraitzeko prest. Bere esanetan, fisikoki ondo aritu zen, baita belarra mozteko eran ere, baina teknika falta zaiola aitortu digu. Lehena Mitxelena geratu zen, eta 200 kilotako aldea atera zion Joxe Jabierri. Hala ere, teknika lantzen jarraituko duela adierazi digu. Animo eta aurre!



Eskaitze

Bideo eta Argazki

Usurbil

tlf 36 14 87

oiartzun

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2

Tel.: 37 10 42

SERIGRAFIA

TANOGRAFIA

OSU

Ugaldea poligona 36 - 2^a Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETA

IRA GARKI SERIGRAFIA

KAMISETEN INPRIMAKETA

ORDU BETEKO GELDIALDIA

Pasa den uztailaren 14ean **Miguel Angel Blanco**, Ermuako PPko zinegotziaaren erahilketa salatzeke ordu beteko geldialdirako deialdia egin zen.

Herriko banketxeak geratu baziren ere, orohar, denda eta tabernek ez zuten geldialdirik burutu.

Enpresetan, berriz, denetik izan zen. Gehienak lanean normal jarraitu bazuten ere, izan zen langile gehienak geratu ziren lantoko.



Pasa den uztailaren 17an, **Kirikoketa txalaparta taldeak** Gasteizen ospatu den Jazzaldian parte hartu zuen. **Jexux Artze, Iker Muguruza, Pello de La Cruz eta Mikel Artolak** Iñaki Salvador musikoak zuzentzen duen **Zilbor Hestea** musika taldean hartzen dute parte, eta pasa den ostegunean Eric Clapton musikalaria-ekin batera hartu zuten parte jazzaldi honetan. Kirikoketak bi kantetan jo zuen txalaparta, eta jendeak beste kanta bat ere eskatu zieten.

kirik, Ingemar adibidez. Bestelakorik ere izan zen: UCINen esate baterako, langileak asanbladan geldialdirik ez egitea erabaki ondoren, nagusiek argindarra moztu zuten langileak gelditzera behartuz.

Azkenik, udaletxe aurrean 25 bat herritar bildu ziren helburu berarekin. Ertzainak ere bertaratu ziren: istiluak izan zitezkeen susmoarekin nonbait. Kontua da, hauen agerpenarekin haserre, bildutako zenbaitek ospa egitea erabaki zuela.



Argazkia: Egin

Pasa den ostirala eta larunbata bitarteko gauetan, orduak inguruan, ezezagun batzuk **Kutxa eta Euskadiko Kutxako kristalak apurtu** zituzten. Ertzainak etorri ziren, baina ez zen istilurik egon. Hala ere, zenbait pertsonak ikusi ahal izan zuten ertzainak zerbaiten bila zebiltzala lurrian. Alde egin zutenean, zeren bila zebiltzan ikustera joan ziren eta goian ikusten dituzuen **posta ilegalak** aurkitu zituzten. Berandago ertzainak berriro itzuli ziren hauen bila.



Andatza Kirol Elkarreak uztailaren 19 eta 20an Urbasara egindako mendi bizikleta martxara 11 lagun joan ziren. Larunbatean, Urbasako kanpinetik hasi eta Santa Maria ermitaren ingurura, Dulantz mendira, Pilatosen balkoira eta kanpinera sei orduko martxa egin zuten. Igandean, berriz, Leizarango tunela eta San Donatora joan ziren, beste sei orduko ibilaldia. Sasoa behintzat ez da falta.

Andatza
karr ozeria
Gumer Sánchez

Osinalde industrialdea
Errota Berri kalea **36 36 77**
USURBIL

MAHUKA



GAZTE DENDA
Udako merkeak
hasi ditugu

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06

PORTUARRONS



ITURGINDEGIA
BAINUKO
ALTZARIAK

Kale nagusia, 2-2-2D
Tlf. Denda 36 46 37
Etxea 36 52 99





Errebotea, yoko-garbia eta pelota Zubietan

Zubieta pelotazaleen plaza bihurtuko da datozen egunetan. Bertako jaietan, Santiotan, pelota modalitate ezberdinetako partidua jokatu dira. Zubieta Pilota Elkartek antolatutako hainbat txapelketen finalak ikusi ahal izango dira Zubietako plazan.

Ekainaz geroztik, asteburuz asteburu, pelota nagusitu da Zubietako plazan. Ostiral, larunbat eta igandetan hiru modalitate ezberdinetako txapelketak ikusteko aukera paregabea izan dute zubietarrek, nahiz bertara hurbildu diren guztiak. Santio egunean eta San Inazio egunean emango zaie amaiera yoko-garbi, errebote eta eskuz pelota plaza libreko txapelketei.

Yoko-garbin lau talderen arteko norgehiagoka ikusi ahal izan da Zubietako plazan. Lau taldek partehartu dute: bi



Zubieta Pilota Elkartekoak eta beste bi Billabonako Bear-Zana taldekoak. Bi hilabete hauetan lehia bizia izan dute lau taldeek eta azkenean zubietarrak nagusitu dira. Uztaillaren 25ean, Santio egunean, Zaldua I, Bengoetxea eta Arregi egongo dira plazaren alde batean. Beste aldean, berriz, txapela eskuratu nahian beste hiru zubietar: Aizpurua I,

Aizpurua II eta Zaldua II.

Errebotean, txapelketa lokala jokatu da. Zubietako lau talderen artean jokatu da txapelketa. Urtean zehar Billabona eta iparraldeko talde ezberdinekin lehia ibili ondoren, zubietarrek elkarren artean neurtu dituzte indarrak. Datorren uztaillaren 31ean hamar pelotari izango dira aurrez aurre. Alde batean, Zaldua II, Aizpurua I, Astiazaran, Sanchez eta Segurola izango dira eta Zaldua I, Amenabar, Sansiñena, Arrillaga eta Iparragirre bestean.

Azkenik, eskuz pelota plaza librean aipatu behar. Herri ezberdinetako pelotariak pasa dira Zubietako plazatik. Billabona, Usurbil, Lasarte, Donostia eta Berako pelotariak jokatuko dute hegoaldean hain eza-guna ez den pelota modalitate honen txapelketa. Finala, billabonarrek jokatuko dute.



TXIRIBOGA
TABERNA
pintxoak eta
bokatak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13



kafe berezia

ETXE-ALDIA, 1
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

UGA: "Gazteek ez dute ardurarik hartu nahi"

Usurbilgo Gazte Asanbladak duela hiru bat urte eman zituen bere lehenengo pausoak. Herriko koadrila bat (20 gazte inguru) izan zen bultzatzailea, eta honez gero, makina bat ekin-tza eta ekitaldi antolatu ditu talde honek.

Iban Salsamendik, UGAren sortzaileetako batek, horrela azaldu digu Gazte Asanbladaren sorrera: "*garai hartan koadrilakoak ikusten genuen jendea, batez ere gazte jendea, herriatik kanpora ateratzen zela. Hau da, herrian ez zegoen ezer egiteko eta batez ere asteburuetan alde egiten zuen herriatik. Hori ikusita, pentsatu genuen zerbait egin behar zela, eta bilerak egiten hasi ginen*".

Lehenengo bilera haiek Txiriboga tabernan egin zituzten, baina gutxieneko antolaketa baten beharra ikusita, Udalarri lokala eskatu zioten. Udarregi zaharrean dagoen eta Belmont gaztelekua izan zen lokala eman zien Udalak, eta konponketa lanak egin ondoren, lanean hasi ziren.

Martxa hartzea kostatzen

Hasierako garaiak ez ziren oso errazak izan, izan ere, lan erritmoa hartzea nahikoa kostatu baitzitzairen. Honen ondorioz, taldeko kide batzuk ardurari gehiago hartu zituzten eta horrek eragina izan zuen: "*batzuk gehiago mugitzen ziren, eta azkenean "erre" egin ziren; ondorioz askok utzi egin zuten taldea*".

Azken bileretan jende gutxia-

go egonda, "*jende berria erakartzeko herri mailako bilera baten deialdia egin genuen, baina ez zen jende gehiegi azaldu*".

Lan talde desberdinak egin zituzten: dekorazioa, kirolak, kultura eta gizarte gaiak. **Aitziber Lanberri**, UGAko kidearen esanetan, "*bakoitza talde batean zebilen. Proposamenak bertan egiten ziren eta ondoren talde haundian eztabaidatzen ziren. Baina sistema honek porrot egin zuen*".

UGAk antolatzen dituen ekitzen artean, aurten festetan izan duten parte hartzea nabarmendu beharko litzateke. Maskota egin, oilaskobil-tzaileen egunaz arduratu, kontzertua antolatu... Baina lan hauetaz gain, futbito eta frontenis txapelketak, hitzaldiak, kontzertuak ere prestatzen dituzte urtean zehar.

Nahiz eta lan haundia izan, norbaitek egin beharrekoa dela diote taldekideek: "*une honetan 20 bat lagun gabiltza UGAN, 19, 18 eta 17 urte ingurukoak, baina horietatik gutxiengo batek daramagu pisu guztia. Gazteagoak direnak ez dituzte ardurarik hartu nahi, eta beraz, betikoak jarraitu behar dugu lanean. Zaila ikusten dugu erreleboa. Bestetik, UGAk atek irekita ditu denentzat, lan egiteko prest dagoen edonorentzat. Ez gara "sekta" edo antzeko zerbait!*".



Udarregi zaharrean dagoen lokalean dago UGAren egoitza. Kanpoko marrazkiak ere beraien egindakoak dira.

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu Ofiziala



Zumartegi industrialdea
Aitezarra kalea, 1
Tel.: 36 10 79 Usurbil

Ondo pasa San Praixkuak!

ETXEBESTE JATETXEA

EGUNEKO BAZKARIAK

Aginaga (Usurbil) Tel.: 36 27 40

Lehiaketa



Arrate jate-
txeko etxeko-
andrea leiho-
an zegoen
ongi- etorria
egiten eta
berehala igo
zen **Eider**

Tapia gure irabazlea ere. Bertako afari goxoa jatera joaten den ere ez zaio asko kostako eskilarak igo-tzea. Oporrak ongi hasteko modu bat izan daiteke, ezta ?

Udako oporrak iritsi direla eta, gure lehia-
ketak ere atsedena hartuko du. Ez dugu
galderarik egingo, baina oporren bueltan
sari berezia zozketatuko dugu **oporretatik
postala bidaltzen** diguzuen guztion artean.
Berdin du nora joaten zareten, edonondik
bidalitako postalak jasoko ditugu gure
buzoian:

Noaua! hamabostekaria
Kale nagusia, 37
20.170 USURBIL

Hondartzara joateko eguraldirik ez du egin azken aldi honetan, baina aurreko aleko letra-zopan hondartzara joateko bederatzi gauza topatu genituen: txankletak, bainu-jantzia, toaila, krema, pala, kuboa, betaurrekoak, txapela eta Noaua!

Oraingoan, berriz, Kantauri kostaldeko bederatzi herriren izenak bilatuz pasa dezakezue denbora.

| | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | L | E | P | A | X | T | D | E | T | N | Q | I | U | M | A | P | W |
| D | L | I | L | E | K | E | I | T | I | O | Z | I | T | K | I | M | A |
| K | L | A | M | S | E | T | O | K | E | P | Z | O | G | A | Z | O | I |
| L | E | Z | D | I | M | A | I | B | O | H | X | R | W | O | T | E | B |
| A | R | W | X | I | U | Z | Z | Z | E | U | E | I | J | K | N | K | I |
| T | U | K | I | T | I | O | P | A | T | Z | T | O | I | E | A | A | R |
| R | U | I | O | X | E | N | B | K | L | R | I | N | M | R | J | E | R |
| O | Y | A | B | E | D | P | L | Q | O | E | U | T | A | R | U | I | A |
| G | I | S | X | T | I | E | N | O | A | U | P | T | Q | S | N | T | D |
| L | I | O | E | L | T | K | E | K | E | L | K | O | N | A | I | I | N |
| A | E | K | U | A | E | M | E | I | A | T | P | E | S | A | A | B | O |
| S | O | E | M | R | E | B | O | A | Ñ | Q | M | O | P | E | S | T | H |

Komikia



BAINA BERTARAKO
DITUK HAINBESTE
LATA MOFEL?

UT
TARLONA BOTA
ETA DUEKINA
TOKIAREN DEN
BITARTEN

Maddi

**TABERNA
JATETXEA**

ANTXETA

EGUZKITZA, 4
TEL: 37 03 44
20.170 USURBIL

GALARRAGA
GARRAIOAK

- * LUR ONGARRIAK
- * ZABOR BILKETA
- * ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

BARRAKO
Barrako, errega-
lirak eta
etxeko arropak

Aritzeta kalea, 1
telefonoa: 36 17 87

UZTAILAK 25 ostirala

- **Andatzpe** eta **Peña Pagolak** antolatzen duten **XXV. Pelota Txapelketaren** barnean, gaur, jubeniletan: **Roteta/Larrarte** (Añorga) vs. **Izagirre/Kuluaga** (Tolosa) eta **Sorrarain/San Sebastian** vs. **ETxabe-Andonegi** (Eibar). Helduetan: **Sarasua/Uzkudun** vs. **Ruiz/Garmendia**. Gaueko **22.00**etan. Txapelketa iraila erdialdean amaituko da.

UZTAILAK 26 larunbata

- **Pelota Txapelketaren** barnean, gaur, jubeniletan: **Zabaleta/Zabaleta** (Bergara) vs. **Zelaia/ETxabe** (Azpeitia). Helduetan: **Bidezabal/Odriozola** (Azpeitia) vs. **Goizueta/Joango** (Goizueta) eta **Aranzeta/Gutierrez** vs. **Gartzia/Lizarralde**. **22.00**etan.

UZTAILAK 28 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.

ABUZTUAK 4 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.

OHARRAK

- ✓ **Mendian** pasa nahi badituzu aurtengo **oporrak** deitu ondoko telefonoetara: 18 02 53 edo 94 454 16 95. J.R Agirrerengatik galdetu. Federatuta egon behar duzu.
- ✓ **Laruzko kartera bat** aurkitu da Udarregi zaharrean antolatu ziren dantza ikastaroetan. Etumeta euskaltegitik pasa edo eta udaltzaingoari deitu.



Uztailaren 27rarte **Jose Luis Zumetaren azken lanak** ikusteko aukera izango dugu **Zumaian**, Erribera kalean dagoen Oxford erakustokian.

- ✓ **Butanozko sukaldea** edo **hoz-kailu zaharra** bota behar baldin badituzu, guri deitu: 36 20 88.
- ✓ **Telefono-fax berria** saltzen da. Deitu 36 59 75 telefonora. Gauez.
- ✓ **Umeak zainduko nituzke udan**. Deitu 36 66 39 telefonora.
- ✓ Kiroldegiko saunan edo inguruko geletan 2 zintzilikariodun **kate bat** eta **2 pulsera** galdu nituen, bata Ana Isabel izenarekin. Norbaitek aurkitu baditu deitu iluntzetan **360002** telefonora.
- ✓ 10-12 tailako **errealeko txandala** hartuko genuke erregalatuta edo bestela merke erosi. Deitu iluntzetan, **360002** telefonora.

LANPOSTUAK

- ⇒ **Gipuzkoako Foru Aldundiak Hiri kalitatea** kontrolatzeko erdi

mailako teknikariak behar ditu. Eskaerak aurkezteko epea **uztailaren 29**an amaitzen da. Informazio gehiago Gipuzkoako Foru Aldundian edo GA Oren 123. zenbakian.

- ⇒ **Aramako Udalak eginkizun anitzeko Operaria** behar ditu. Eskaerak aurkezteko epea **uztailaren 30**ean amaitzen da. Informazio gehiago Aramako Udalean edo GA Oren 124. zenbakian.
- ⇒ **Astigarragako Udalak delineante bat** behar du. Eskaerak aurkezteko epea **abuztuaren 1**ean amaitzen da. Informazio gehiago stigarragako Udalean edo GA Oren 127. zenbakian.
- ⇒ **Eibargo Udalak peoi bat** behar du. Eskaerak aurkezteko epea **abuztuaren 13**an amaitzen da. Informazio gehiago Eibargo Udalean edo GA Oren 134. zenbakian.

BAZKIDE TXARTEA

5.000 PEZETAKO URTE OSORAKO

Izena: _____
 1. Abizena: _____
 2. Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____


H A M A B O S T E K A R I A






saltxipi

jatetxea



Txokoalde, z/g
USURBIL

☎ 36 11 27
37 10 94

Fax 36 55 54